ANGELUKO IKASLEAK

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1994-95.

HAMASEIGARREN ERAKASPENA 

ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA.

1. Eñaut zertako ez zen ezkondu?
2. Zonbat neska ibili ziren haren ondotik
3. Zertako ibili ziren haren ondotik.

# Donadoa

ITURRETXEKO Eñaut donado gelditua zen eta hirurretan hogoi-ta hamar urte bazituen. Erraiten zuen nahi ukan balu ezkondua izaiten ahal zela, lauetan berdin, bere bizian, eta nolako etxeko alabekin! Atseginekin aipatzen zuen hogoi-ta hamar urtetan, haren gibeletik ibilia zen neska gazte baten ixtorioa. Nik uste Donapaule alderdiko etxalde handi batetako andregai bat zen. Bortz urtez segidan han erosiak ukanak zituen ardien bazkak. Alhorrak mabain hau bezain ordoki omen ziren, eta gizenak. Laneko ez baitu berdin balio.

Iturretxea Garaziko maldetan hedatua zen. Ikusazue zonbait etzirenez gutiziatuko Amikuzeko etxalde ederrean sartzeaz. Eta gehiago zena, neskak zuen galdatua lagun, etxekoek onharturik. Bainan ez, Eñautek donado egon nahiago zuela ihardetsi zion, garbi-garbia. Eta neska trixterik gelditu omen zen, batere samurtu gabe haatik. Oraino, adinean harat joanak izana gatik ere, elgarrekin solastatzen ziren, Donapauleko merkatuetan kausitzen zirelarik. Eta berdin Graxiren haurrez mintzatzen ziren, adixkide zahar batzu bezala. Graxiren senharraz egundaino...

Ohore zitzaion ere bertze hiru etxeko alaba hartaz hartuak izanik eta berek senhartzat galdaturik. Hiruer eza eman zioten, berdin-berdina, ardien amodioa azkarrago zuelakotz bihotzean.

Eta artzaina bere artaldeaz mintzatzen zen, muko bat bere emazte gaiaz bezala, aita bat bere haurrez bezala, amodio berarekin, atsegin berarekin, ohore berarekin. Artzain izaiteko sortua zen.

Nola moldatua zuen bere ehun burutako artalde hori? Emeki-emeki, berak bere gustuz, bere lana dela medio. Ardiendako bizi zen, aita bat bere haurrentzat bezala, edo hobeki ama bat bere haurrentzat bezala. Egiten zituen sos guziak ardietan ezartzen zituen. Hogoi urtetan herriko nagusi batentzat artzain sartu zen. Orduan, nagusiaren artaldearen aldean, zonbait ardi hazi zituen. Holaxet berrogoi-ta hamar burutarat heldu zen. Neguan etxalde ttipi batean ezartzen zituen bazketan. Udan berak zaintzen zituen bortuan.

1. Ekarriko zinauket : vous me le porteriez
2. Hartuko ginauzuke : nous vous le prendrions
3. Emanen liokete : ils le lui donneraient

## (III). ADITZ IKASKUNTZA. *

31. Ihardetsi zion. 32. UKAN. Baldintza. O.B
33. Ohore zitzaion 34. IZAN. Osogarri Zeihar.

31. UKAN. Conj. à dble cplt. Indicatif Imparfait

| Hari = à lui. Obj. sing. | | Obj. Plur. |
|---|---|---|
| Nik nion | = je le lui avais | Nizkion |
| Zuk zinion | = vs le lui aviez | Zinizkion |
| Harek zion | = il le lui avait | Zizkion |
| Guk ginion | = ns le lui avions | } |
| Zuek zinioten | = vs le lui aviez | } |
| Heiek zioten | = ils le lui avaient | etc. |

32. UKAN. C. à dble cplt. Condit. 1. O.S. C.I.S.

Nik nuke = je l'aurais. Neri = à moi.

| | | |
|---|---|---|
| Zuk zinauket | = vous me l'auriez | 1 |
| Harek lauket | = il me l'aurait | |
| Zuek zinauketet | = vous me l'auriez | |
| Heiek lauketet | = ils me l'auraient | |

Zuri = à vous

| | | |
|---|---|---|
| Nik nauzuke | = je vous l'aurais | 2 |
| Harek lauzuke | = il vous l'aurait | |
| Guk ginauzuke | = nous vous l'aurions | |
| Heiek lauzukete | = ils vous l'auraient | |

Hari = à lui

| | | |
|---|---|---|
| Nik nioke | = je le lui aurais | 3 |
| Zuk zinioke | = vous le lui auriez | |
| Harek lioke | = il le lui aurait | |
| Guk ginioke | = nous le lui aurions | |
| Zuek zeniokete | = vous le lui auriez | |
| Heiek liokete | = ils le lui auraient. | |

* Osogarri bikhuneko : A double complément